


SARBIDEAK



Santikurutze Kanpezuko turismo bulegoa: 945 405 424

Vasco Navarro ibilbide berdeko interpretazio zentroa: 945 410 577

Acedoko kanpina: 948 52 13 51

Vasco Navarro trenbidearen ibilbide berdea elkartea: 948 556 537

- Ingurune babestak / Espacios Protegidos (Naturra 2000 Sarea / Red Natura 2000)
- Tokiko parke / Parque Local
- Abuzendekua / Area recreativa
- Iturria / Fuente
- Pasabidea / Pasarela
- Tunela / Tunnel
- Bide Inbilitatua / Inapropiable
- Vasco Navarro trenbidearen Ibilbide berdea / Itinerario Verde del ferrocarril Vasco-Navarro



IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: Laminoriako tunela-Acedo

Vasco-Navarro trenbidearen antzinako bide honek Arabako mendialdearen bihotz berdea zeharkatzen zuen Lizarrara bidean geografia malkartsudun paisaia honek interes naturalistiko handiko inguruak ezkutatzen ditu bere baitan, hala nola, Izki parke naturala, Entzia eta Ega-Berron ibaia. Azken hau izango dugu bidelagun ibilbidean zehar eta bere inguruan sortu ziren herriak ezagutzeko aukera eskainiko digu.

0 km.- Etapa Vitoria-Gasteizetik datorren Vasco-Navarro trenbide zaharraren jarraipena da. Laminoriako tunelera heldu baino lehen eta baltsa baten parean, ezkerrera doan desbiderapena hartuko dugu eta malda gogorreko pista batetik Gereñuko mendaterantz abiatuko gara. Jaitsiera ia osoa errepidetik doa harik eta Santo Toribio basilizara heldu arte.

8 km.- STO. TORIBIO: Hodi baten ondoan jaitsiz doa bidea poliki-poliki. Zekuianoko geralekuaren paretik pasa ostean Elortzako tunela zeharkatuko dugu.

10,4 km.- MAEZTUko sarreran aldundiak egokitutako pasabide berria zeharkatuko dugu eta 500 metrotan Maeztuko geltokiarekin topo egingo dugu. Zuzen jarraitu eta Peñasaladako zubia atzean utzita pixkanaka-pixkanaka Zumalde Tokiko parkera hurbilduko gara. Aurrerago beste pasabide batek A-132 errepidea zeharkatzeko aukera emango digu, Bakardadearen basilizara doan bidearekin lotzeko.

13 km.- BASELIZA: Landaretza hertsiko tarte baten ostean Atauriko zubibidera helduko gara. Jarraian beriki egokitutako tunela zeharkatu eta aurrerantz jarraituko dugu, bidegurutze batera heldu arte. Ezkerreko bidea hartu eta errepidearekin topo egingo dugu berriro ere, oraingoan behetik zeharkatuko duguna. Erreka ondotik



jarraituko dugu harik eta Fuenfria izeneko tunelera heldu eta hau zeharkatu arte.

18,9 km.- Zubi barri batek errepideko beste aldean utziko gaitu ANTOÑANAKO interpretazio zentrora eta geltoki zaharrera hurbilduz. Gure ibilbideak errepide estu batetik jarraitzen du, baina berehala utzi behar dugu ezkerrera jotzeko. Santa Cristina atsedenlekuaren ondotik pasatuz eta gero Fresnedoko Tokiko parkearen ondoan utziko gaituen pasabidera helduko gara.

22,6 km.- FRESNEDO: Bidean aurrera egin eta Santikurutze Kanpezu, Orbiso eta Zuñigako desbiderapenak alde batean utziko ditugu. Azken puntu honetan errepidea kontu handiz zeharkatuko dugu eta Arquijaseko zubiraino jarraituko dugu.

31,1 km.- ARQUIJAS: Harrizko eraikuntza erraldoia zeharkatu ondoren, geralekuaren aurrak eskumaldean utziko ditugu. Hemendik irteten da Arquijaseko ermitara doan bidea, baina guk aurrera egingo dugu tunelerantz. Tunela zeharkatu eta Acedora helduko gara. Nafarroako herri txiki honetan amaitzen da etapa.

MIDE



33,8 Km



500 m



8 h 30'  4 h'



%100

Gogortasuna



2

Severidad

Orientazioa



1

Orientación

Desplazamendua



1

Desplazamiento

Esfortzua



4

Esfuerzo

MIDE ibilbideen gogortasun teknika zein fisika baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna




Desplazamenduaren zailtasuna




Behar den ahalegin maila

PROFILA



IBILBIDE-ORRIA: Laminoriako tunela-Acedo



IBILTARIAREN DEKALOGOA

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin alde aurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako crema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 112 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu